

BILBOKO EUSKAL KATEDRAREN EHUNURTEBURUA

Bilbon, 1988-VII-1

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren sarrera-hitzak

Jaun-Andreak:

Ehun urte da Bizkaiko Diputazioak Bilboko Institutuan euskararen katedra sortu zuela. Gogoangarri da gertaldi hau, bai lehiaketan parte hartu zuten gizon ospetsuengatik, eta bai, eta batez ere, euskararentzat ekarri zituen ondorioengatik. Hori dela eta, Euskaltzaindiari, Bizkaiko Diputazioarekin batean, iruditu zaio behar zuela ospaketa berezi bat egin urte-muga hori gogoratzeko.

Orduan, katedra sortu zenean, alegia, batzuek nahiago zuten euskara bizirik zegoen lekuan jar zedila, adibidez Markina edo Lekeition, baina ez, Bilbo, Bizkaiko hiriburua, aukeratu zen beronen kokalekutzat.

Aureliano Galarza, Gernika aldeko diputatuak, egin zion eskaria Diputazioari, eta honek onartu. Ez zen, noski, lehenengo. Bizkaitik kanpora —Donostian alegia— egin zen lehenago beste saiorik, eta bai, dirudienez, Araban ere, baina oraingo honek beste horiek ez bezalako segida izango du eta horregatik merezi zuen oroipen hau egitea.

Itziar Lakak ateraberriak ditu Katedra honen sorrerari buruzko zertzeladak (1). Lehiaketara sei aurkeztu ziren: Luis de Iza, Pedro Alberdi, Eustaquio Madina, R. M. de Azkue, Miguel de Unamuno eta Sabino Arana Goiri. Azkeneko hirukote hau gerora entzutetsua izango da, bakoitzak bere bidea hartzen duelarik. Unamuno eta Azkue urte berekoak ziren, 23 urteko adina zuten; Aranak, berriz, 22. Baina epaimahaiko jaunek, hautagaien “curriculum vitae” ikusiz, bi hautagai bakarrik hartu zituzten kontutan: Unamuno eta Azkue. 11 boto jaso zituen Azkuek eta 3 Unamunok.

(1) ITZIAR LAKA: “Bizkaiko Aldundiaren euskarazko katedra” ASJU (1987), 409.

Ez da ongi ulertzen zergatik nahi zuen Unamunok katedra hura beretzat. Dirudienez, ordurako jarrera guztiz tinkoa zuen: Euskalerrriak, alegia, gaztelania behar zuela hartu mintzabide edo ibilgailutzat, eta besteari, euskarari, ehorzketa ospetsu bat egin, eta kito. Baina bego.

Besteak, Aranak, bai, bere egitasmoak aurrera eramateko gogo biziz desiratzen zuen katedra hori, baina Azkuek kendu zion. Eta hortik sortuko da, antza denez, Aranak Azkueren aurka beti izango duen jelsosi punta bezalako hori.

Itziar Lakak bere lanean aipatzen du nik neure *Historia de la Literatura Vasca*-n dakardan lekukotasun bat. Eta bai, egia da. 1946. urtean zen. Comillasen kurtsoa bukatu ondoren, Lekeitiora joan nintzen ahaide batzuk bisitatzerara (Fresnedo jaunaren familia, alegia). Eta jaun honek esan zidan: "Bihar Azkue ikusten joan behar dogu. Udaldia pasatzen etorria da". Nik Azkue liburuetatik ezagutzen nuen ordurako, baina aurpegiz ez; orduan ezagutu nuen aurrenengo aldiz. Eta ez dakit zergatik, baina gure elkar hizketa informal hartan kontu hau atera zuen, gero neure Historia delakoan jarri nuena: Aranak, alegia, bisita bat egin ziola, arren eskatuz, utz ziezaiola berari klaseak ematen; soldata, orde, osozorik Azkuerentzat gelditzen zelarik. Azkuek, jakina, ezezkoa eman zion proposamen honi.

Baina, gura edo gura ez, Azkuek gerora aurrez-aurre izango du beti Arana eta Aranatarren eskola.

Ni ez naiz hasiko hemen katedra haren historia egiten, zer arrakasta izan zuen, zer irakaspen-mota ematen zen, nolako fruituak ekarri zituen etab. aztertzen. Baina hau behintzat oker egoteko arrisku handi gabe esan daitekeela uste dut: ez zela, alegia, katedra horren fruiturik txikiena izan Azkue bezalako euskal langile handi bat sortaraztea. Bai. Azkue apaiz-karrera bukaberri zen. Diputazioak eman zion izendapen honekin Apezpikutegiak ez zion loturarik dakarren elizkargu edo obligaziorik jarri, eta hala libre geldituko da euskal gauzei lotzeko. Eta hark bere bizi guztian leialki erantzungo dio eginbide honi. Beste fruiturik lortu ez balitz ere, horrexegatik bakarrik katedra horrek sortzea merezi zuen. Neurri handi batean horri esker izan dugu Azkue bezalako langile handi bat euskal gauzetan.

* * *

Baina kasu eman diezaiogun aldiari, histori uneari. Izan ere, orduan, eta Bilbon preseski, zerbait berri sortzen da, eta sortzaileak Arana eta Azkue izango dira. Bilbo, hiri handi, zabal eta aberats bihurtzen ari den unean, eta bertan euskarak krak egiten duen unean, zer da eta orduan-txe, hain zuzen, gertatzen da fenomeno berri hau.

Azkue berak, euskal katedraren sorrerari buruz mintzo dela, hauxe esango digu: “Bizkaiko aldundiaren orduko asmoa gora andikoa izan zan euskera zarrari indar berriak zainetartzeko. Orduan asi ginan Arana-Goiri ta ni, ateko aldeari bizkarra emanez, barrura begira, nola edo ala lanari ekin ta ekin” (2).

Eta orduantxe sortzen da Mitxelenak hiperbizkaieraren izenaz bataiatu duen fenomeno bitxia:

“Desde hace años, acaso desde finales del siglo pasado, ha hecho estragos el deliberado empeño de confundir el vizcaíno con lo que yo he llamado —no sin acierto conceptual, y que se me perdone la petulancia— hipervizcaíno, formado con solo aplicar la regla que sigue: algo es vizcaíno de lengua si y solamente si sólo aparece ahí y falta en las demás variedades de la lengua (de la cual se sigue suponiendo, sin embargo, que es dialecto el vizcaíno); si no se alcanza esa perfección extrema, siempre deseable, algo es vizcaíno en la medida en que tiene menos copartícipes o, en otras palabras, en la medida en que no es vasco común” (3).

Eta nik esango nuke erregela bera euskarari orokorrean ezarriz, orduan jaiotzen dela hipereuskara deituko genukeena ere. Zerbait euskara izango da, noiz eta ez baitu beste hizkuntzetatik hartutako fitsik. Azkue gaztea oso iraultzaile agertzen zaigu urte haietan. Hori egiaztatze-ko aski da katedra hau sortu eta hiru-lau urte geroago agertu zuen *Euskal Izkindea* aztertzea (4).

Itziar Lakak aipatzen du Arrola izeneko jaun batek katedra honetan ematen zen irakaspenari buruz dioena:

“Ya que se habla de ese asunto, he de manifestar que yo concurrí un año a esos exámenes y no entendí una palabra del vascuence que en esa cátedra se enseña; y por ello propondría que se suprimiera esa enseñanza o se diera en otra forma” (5).

Ikusten denez, purismorik amorratuenean irakasten zen, nunbait, hizkuntza. Eta hori egiten zen euskara biziak Bilbon krak egiten zuen unean berean.

Beharbada fenomeno bitxi honek izan du antzekorik beste hizkuntza batzuetan ere. Heberkera, esate baterako, herri-hizkuntza bizi bezala

(2) AZKUE: *Euskalerrriaren Yakintza*, 1935, 8.

(3) MICHELENA L.: “Lengua común y dialectos vascos” ASJU (1981), 300.

(4) Zein diren, ustez, euskal aditzaren formarik zaharrenak, eta beroiek erabiltzera jarriko da. Ikus Azkue berak *Hiztegiaren* hitzaurrean dioena, VIII. orrialdean.

(5) *Boletín Oficial de la Provincia de Vizcaya*, 1899.eko Maiatzaren 20a; Itziar Lakak aipatua, o. cit., 417, 22. oharrean.

galdurik zegoen Jesukristo jaio zenerako. Hirurehun urte lehenago arameoa bilakatu zen juduen herri-hizkuntza, baina hori bai, judutar eskola-tuek heberkeraz idazten zuten, eta heberkera guztiz garbian idatzi ere. Hala irakurtzen dugu *Les Langues du Monde* delakoan (6). Herrian ez da gehiago hitz egiten, baina ordainez edo erreazioz talde landu hauek ez nolanhiko heberkera, baina guztiz garbi-aratza erabiliko dute.

Baina goazen aitzina. Urte asko geroago, 1925. urteko **Euskera**-n “Txukuneria” izenaz artikulua bat idatziko du Azkuek. Bertan esaten du badela gure artean gaitz bat, greko izenaz deitu behar balitz, “katharinitis” deitu beharko litzatekeena. Kataroak, dakizutenez, Erdi Aroko hereje batzuk izan ziren, eta hitz horrek *garbiak* esan nahi du. Azkuek aitortzen du bera ere gaitz horretaz behiala kutsatua egon zela, baina jadanik sendatutzat jotzen du bere burua (7).

Halere, esan behar da Purismo-mota baten sortzaile eta zabaltzaile bilakatu zela Azkue, bereziki *Hiztegia* zela medio. Purismo-mota hau ez dator bat Aranaren purismoarekin, baina azken finean ez daude bata bestetik hain urrun ere.

Hizkuntzan sendo sustraiturik dauden hitz asko eta asko, erdarati-koak direlako, hiztegitik kanpora utzi ditu Azkuek, edo hiztegian agertzen badira, galde-marka batekin edo birekin susmo txarrekotzat joak agertzen dira. Gero, jakina, horiek utzitako hutsarteak betetzeko, ordezkoen bila ibiliko zaizu. Bai. Hiztegia egitean, hitz autoktonoen bila dabil Azkue, baina autoktonotzat jotzen dituenak askotan jatorriz kanpotarrak dira berak ere, edo iratxo batzuk besterik ez dira: horrela zabaldu dira gure mendean *arnari*, *margo*, *enparantza*, *bereter* etab.; eta beste batzuk, jatorriz euskaldunak izanarren, esparru txiki batean bakarrik dira ezagunak. Adibide salatari bat aipatzeagatik, *denbora* hitzarena aipatuko dugu. Azkuek bere hiztegian honela dio: “Denbora = tiempo (??). Debe desterrarse esta palabra, usando en su lugar las voces que aún existen en el pueblo”. Eta *aldi* hitzean esaten du: “tiempo, en su sentido de duración de los seres y época de sucesión”. Mitxelenak, berriz, OEHN esango du *aldi* dela “Vez, turno, momento, tiempo concreto”; eta beheago: “A partir de Azkue se comienza a emplear también como sustitutivo de *denbora*, que, salvo en bersolaris y escritores populares, prácticamente desaparece en las primeras décadas de este siglo” (OEH, *aldi*). Horra Azkueren hiztegiak izan duen eraginaren argibide bat.

Baina dena irabaztea izan ez bazen ere, dena galtzea ere ez zen izan. Orduan egiten da hizkuntza gaitu eta duintzeko ahalegin irmo eta sendo

(6) *Les Langues du Monde*, CNRS, 1952, 114.

(7) AZKUE: “Txukuneria”, **Euskera** VI (1925), II-III, 4-21.

bat, ondorio gabe geldituko ez dena. Bi gidari nagusiak Arana eta Azkue izan ziren, baina bada horien inguruan besterik ere: Etxeita Manilako alkate izana, Txomin Agirre, Kirikiño, Eguzkitza, Eleizalde, Ibargutxi, Arriandiaga, Zabala-Arana, etab. Bakoitzak bere ñabardurak ditu, noski, eta ezin sar daitezke denak zaku berean. Hor da Altube ere; honek bortizki arbuaiatuko du hitzen gehiegizko purismoa, bai Aranarena eta bai Azkuerena ere; baina gero, zer da eta, berak sartuko digu beste purismo-mota bat, sintaxiarena. Eta hor da Urquijo, bilbotarra edo deustuarra berau ere. Honek garbi ikusiko du, zerbait iraunkorrik egingo baldin bada, tradizio zaharra kontutan hartu behar dela, eta hasiko da idazle zaharrak –Sarako Etxeberri, Axular etab.– berriz argitaratzen. Egia esan, orduko giro hartan ez du izango arrakasta handirik, hasieran behintzat. Gehienek ez dute ulertzen zertarako hustutzen zuen bere sakela jaun honek hain euskara txarra duten idazleak argitaratzen. Honekin ez dut esan nahi Azkue batek ez zituela ikusten Axularren balioak; ikusten zituen, bai, baina berezketak eginez beti ere. Hau izango da Azkueren bereizgarri ezagun bat: herri-zale izan nahi du, baina zuzenketak, salbuespenak eta berezketak eginez beti ere.

Orduan zabaltzen da gure artean ortografia berria ere: “K”ren erabiler, etab. Honetan urte batzuk lehentxeago hasiak ziren Iparraldekoak. Jakina denez, letra honi, “K”ri, amorru gaitza agertuko dio Unamunok.

Eta orduan sortu zen joairak izango du eraginik Bizkaitik kanpora ere. Gutxi asko Hegoalde guztira zabalduko da.

Baina honako hau esan behar dela uste dut: erizpide argi eta sendo ezarritako batzuen faltaz, euskal literatura gure mendean, Hegoaldean behintzat, mutur batetik bestera ibiliko da, gehiegizko purismotik gehiegizko zabarkeriara. Hori nolabait konpontzeko, Agiri bat eman zuen Euskaltzaindiak 1959. urtean, zein den euskal hitza erabakiz, baina behar den oreka ez dakit oraindik lortu den (8).

* * *

Bukatzeko, zilegi izan bekit oraintsuko aurkipen baten berri gaur hemen ematea. Bilbotar bati buruz da, hain zuzen, eta uste dut baduela zer-ikusit ukitu ditugun gaiokin.

Igaz, Euskaltzaindia Zarautzen bildu zenean, egin nuen Juan Mateo Zabalaren aipamena Zarauzko frantziskotar mixiolarien kolejoan bizi izan baitzen. Eta beste gauzen artean esan nuen nola azken urteotan azaldu diren bi sermoe-liburu eskuz idatziak eta bilbotar ospetsu horrenak direnak. Orain esan behar dut, bada, hirugarren bat agertu dela, non eta Jerusalem, hango frantziskotarren komentuan.

(8) “Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz”, *Euskera* (1959), 214.

Gauza honela izandu da. Aita Nikolas Zumalde, erromesekin hemendik hara maiz joaten denak, eskutitz bat egin zidan, hauxe esanez: bazela, alegia, hango konentuaren ekonomatoko artxibategian euskarazko liburu bat, eskuz idatzia, baina egilea ezezaguna zela eta ia egin al nezakeen zerbait hori jakiteko.

Zumalde horrek, bada, orrialde batzuen fotokopiak bidaliz batera, autorea nor izan zitekeen arakatzeko eskatzen zidan. Aitortu behar dut bat ere gogorik gabe hartu nuela eskari hori. "Nola arraio jakin nezake nik Jerusalemenean dagoen liburu baten egilea nor den?", galdetzen nion neure buruari. Egun batzuk pasatzen utzi nituen orriak zabaldu gabe. Azkenean ikusi nituen: Gabon eguna zen, mendian gertatuko zitzaidan ererikoa baino egun batzuk lehentxeago, eta ikusi hutsarekin ez nuen zalantza-izpirik izan: "Hau Juan Mateo de Zabala da. Oso ondo ezagutzen dut Aita horren letra", esan nuen. Eta hala jakin arazi nion Zumalderi.

Hemen duzue liburu horren fotokopiazko ale bat, eta gaur Euskaltzaindiko bibliotekarako, hots, "Azkue Biblioteka"rako uzten dut. Titulua honela du: *Euskerazco Misiñoetaraco Doctrinaac ta sermoiac*.

Nola joan zen liburu hau Jerusalemenera? Hori ez dut jakin oraindik, baina gauza ez da hain gertagaitza. Badakizue Lur Sainduko santutegirik gehienak frantziskotarrek zaintzen ditugula, mundu guztiko frantziskotarrek, alegia, eta frantziskotar euskaldunik aski egon izan da han. Segur aski, Mendizabalen esklaustrazioa gertatu zenean edo pixka bat geroago, hara joan zen fraideren batek berekin eramango zuen liburua; ordurako Aita Zabala hila zen; fraide horrek agian pentsatuko zuen handik itzultzean liburu horrek mesede egingo ziola sermoiak prestatzeko etab., baina han hilko zen, eta beste fraideek, liburuaren kaligrafia ederra ikustean, gorde egin zuten.

Aita Zabala joan-mendearen lehen erdikoa dugu. Berak ezagutu zuen euskal giroa eta joan-mende horren hondarrekoa ez dira berdinak, nahiz eta guztiz desberdinak ere ez izan. Aita Zabalak beti idazten du bizkaieraz eta ardura eta kontu handiz lantzen du bere hizkera. Gizon jakintsua da, herriko euskara sakonki aztertu duena. Bera ere purista da, eta uste dut hizkuntza guztiek, eta bereziki hizkuntza ñimiñoek, behar dutela beren nortasuna gorde eta zaindu, eta beraz on dela neurri bateko purismoa. Baina Aita Zabala bilbotarrak badu sena eta badaki behar diren neurriak gordetzen. Horregatik uste dut alde bateko eta besteko nabarmenkerietatik geure burua gordetzeko, gidari ona dugula Aita Juan Mateo Zabala bilbotarra.

Eta besterik ez.